

HITZAREN ESKOLA / IRAKASLEEN FITXA

IRAKASLEA:Koldo Almandoz

DATA: Urria

AZALPENA:

Ikastaroaren helburua, hilabetean zehar jorrotutako kontzeptu batzuk medio, argitalpen baten ekoizpenera zuzendu zen. Hasieratik jakitea helburu finko bat dagoela eta horretarako beharrezkoak diren pausoak ezartzen eta eztabaidatzea. Musen linbotik fabrikarako bidea egitea. Bide batez, klasean garatutakoa publiko egiteko arduraz eta beharraz edo "ezbeharraz" hausnartzea.

Asmo hauen adibide garbiena, Anie Ernaux-ek eta Marc Mariek, lau eskuetara idatzi zuten "argazkiaren erabilera" liburua. Gertakizun berdin baten inguruan sortu daitezkeen interpretazio eta erantzun ezberdinak primeran islatzen dituelako.

Materialeak eta erreferentziak amaieran guztiak zerrendatuak.

AURKIBIDEA (saioen eskema laburra)

i. Saioa

Gezurra / Fikzioa

ii. Saioa

Lapurketa / Jabetza

iii. Saioa

Banpirismoa

iv. Saioa

Sorkuntza / Begirada

v. Saioa

Zirriborroa

vi. Saioa

Akatsa / Hankasartzea / Ezustekoa

vii. Saioa

Argazpituduluak

viii. Saioa

Plaquettea

i. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Lehen saioan elkar ezagutu eta ikastaroa nola egituratu hitz egin genuen. Sorkuntzaz, fikzioaz, gezurraz, ahalmenez, espektatibez,... gure solasaldian sortu ziren kontzeptu ezberdin hauetaz hitz egin eta adibide eta erreferentziak joratu genituen. Bai idatzizkoak edo eta ikusentzunezkoak.

Praktikak ere egiten hasi ginen, gutariko bakoitza hobeto ezagutzen joateko eta norberaren sorkuntza iturriez hausnartzeko.

ii. **SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Originaltasuna, lapurreta, erreferentzien beharraz eta kutsatzeaz.

Bigarren saioa ia "hodeiean" gauzatu genuen. Ni kanpoan nengoelarik, whatsapp-a eta internet bitartez egin genuen lan. Hain zuzen ere tresna hauek praktika berean sarturik. Sarean eraikitako harremanak sorkuntzari nola eragiten dion besteak beste. Irudiak elkar trukatu eta horiekin norberak bere testuak idazteaz gain, besteenak ere irudikatu behar zituen.

iii. **SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Aurreko saioetako testuen errepassoa eta praktika berriak eta aldrebesatuagoak egiteaz gain, banpirismoak eta sorkuntzak izandako harremanaz, eta aldi berean, sorkuntza ororen banpiro izaeraz mintzatu ginen.

Pelikula zatiak ikusi genituen, Drakulaz mintzatu, eta gure artean ere elkarren lanaz elikatzeko praktika egin genuen.

iv. **SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Sorkuntzaren esanahia, sortzailearen asmoan edo hartzailearen begiradan. Non dago?

Erreferentzia ezberdinak erabiliaz, eta Anie Ernaux eta Marc Marieren liburuaren aitzakian, gutariko bakoitzak sorkuntza beraren baitan zein modu ezberdinean begiratu eta ulertu dezakeen ikusten edo haurtzen saiatu ginen.

Eta bide batez, begirada horrek gure sorkuntza nola moldatzen, aldatzen eta nola eragiten dion ikusi genuen.

Gainera youtube saioekin hasi ginen. Gutariko bakoitzak youtuben ikusten duen edozer gauza ekarri behar zuen besteei erakusteko. Liluragarria izan zen ikasleek ikusteko ekarritakoa eta hauen eragina besteongan.

v. **SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Zirriborroaren apologia eta gorazarrea egiteko eguna izan zen.

Aspaldi idatzi nuen Zineborroak manifestua klasera ekarri eta zirriborroaren garrantziaz jardun ginen.

Zirriborroa ahal izan genuen alderdi guztietatik jorratu (materiala, filosofikoa, espaziala, denborarena,..) eta azken finean lan bat, obra bat zer den hausnartzeko aukera emateaz gain, zergatik sortzen dugun pentsatzeko aukera ere eman zigun.

vi. **SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Erreferentzia eta adibide ezberdinen laguntzaz, hankasartzea, errorea eta ezustekoaz hitz egin genuen. Lehenik eta behin ezberdindu genituen eta gero, lanerako eta sorkuntzarako duten garrantziaz ere jardun ginen.

vii. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Orain arte ikusitako guztia praktikan jartzeko asmoz, "Argazpigituluei" heldu genien.

Egoera bati azpigitulua jartzea ohikoa izaten den honetan, guk kontrakora jo genuen, azpigitulua idatzi lehenik eta gero errealitatean, azpigitulu horri dagokion irudia edo errealitatea topatzea.

Ikasleek, azpigitulua materialki (paperezko azpigitulua baitzen) errealitateko egoera baten parean edo aurrean jarri eta argazkia ateratzea zen helburua.

Azpigitulu batek zenbat adiera eta errealitate bildu ditzakeen argi geratu zitzaigun.

viii. **SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Klasean landutako material eta praktika guztiakin argitalpen bat gauzatu genuen. Plaqueette bat. Klase honetan, oplaquettearen diseinu eta maketazioa erabaki genuen. testuen ordena eta argitalpenak bete behar zituen kondizioez mintzatu ginen.

Sorkuntza "izpiritualaren" mundutik sorkuntza materialera. Musen linbotik fabrikarako bidaia ikusi eta ikasteko baliatu genuen.

BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK (erabilitako liburu, pelikula, artelan eta bestelako artefaktuak; egile eta iturri nagusien erreferentziak eta estekak)

Erreferentziak eta lan materialak:

l'Usage de la photo. Anie Ernaux & Marc Marie
Louis le Prince
Lumiere anaiak
Razielen itzulera. K.A
Green Screen Gringo
Dracula. Bram Stoker
Florence Balcombe.
Sipo Phantasma. K.A.
Quebrantos. Maria Elorza eta K.A.
Cirurgia. Querido Antonio
No eres nada. Querido Antonio.
Agosto sin ti. Maria Elorza eta Maider Fernandez
Carta a un joven poeta. Rilke.
Ikea katalogoa
Way Jambu. Manu Uranga
Listas. Ignasi Aballi.
Faceless. Manu Luksch
Las Ruedas de la aves. Emily Dickinson
Failed it!. Erik Kessels
Se Villana. Maria Cañas
River Rites. Ben Rusell.
How to shave your legs. K.A
Zineborroak. K.A
2 fotogramas. Aitor Gametxo.
Goldberg variations. Glen Gould
Uzak. Nuri Bilge Ceylan
Exercices de style. Raymond Queneau
99 ways to tell a story. Matt Madden
Argazpitoluak. K.A
Igeri edo Itto.K.A.
Farmazia Beltza
Belleza infinita argitaletxea

